

Fiskalak 20 urteko espetxea eskatu du Salbeko istiluetan akusatuentzat

Desordena publikoak eragitea leporatu die; defentsarentzat ez dago frogarik

1 993an Donostiako Salbeko istiluetan parte hartzeaz akusatutako 19 gazterentzat ia 20 urteko espetxe zigorra eskatu du fiskalak. Desordena publikoak sortzea eta kasu batzuetan ertzainen kontrako erasoa leporatzen die. Defentsaren ustez, berriz, ez da gazte horien partehartzea frogatua gelditu.

DONOSTIA

Epaiaren zain gelditu zen atzo Donostiako Auzitegian 22 gazteren kontra asteartean hasitako epaiketa. Talde gisa epaitu dituzte gazte horiek orain bi urteko Donostiako Salbean izan ziren istiluengatik, akusazioa batera eramatea erabaki bait zuen Ministerio Fiskalak.

Jose Antonio Altolagirre fiskalak gainera, Asiera Oiartzabalen kontrako akusazioak prozesu horretatik kanpo utzi zituen, ihesi bait dago Poliziak ETAko partaidetzat jo zuenetik. Bestalde, David Callejaren eta Iñaki Zelaiaren kontrako akusazioak atzera bota zituen.

Gainontzeko gazteak desordena publikoak sortzea delitua egin zutela azaldu zuen fiskalak ondorioetan, eta zenbait kasutan ertzainen kontra erasotzea. Ertzainen kontra harriak eta bestelako objektuak jaurtitzeaz akusatu zituen, eta baita iraintzea eta beren kontrako barrikadak jartzea. Hala ere, fiskalak atzera bota zuen hasiera batean eskatutako isunak ondasun publiko nahiz pribatuen kontrako kalteak era-



Defentsak eta fiskalak ondorioak aurkeztu ondoren, epaiaren zain gelditu zen epaiketa.

A. GILLENEA

gin zituztela frogatu ez delako.

Fiskalak ez du uste akusatuak ikusle hutsak izan zirenik istiluetan. Istiluak izan ziren ordu eta leku berean atxilotu zituztela paisanozko ertzainek esan zuen, eta hauek ikusi zutela harriak nola jaurtitzen zituzten.

Aitor Viana Tornero akusatuarentzat 2 urte eta lau hilabetezko kartzela zigorra eskatu zuen fiskalak aurrez lapurreta delituagatik kondenatu zutelako. Epaietara agertu ez zen Manuel Borgogna italiararentzat berriz, urte bete eskatu zuen.

Hamar akusatuentzat —Mikel Toumi, Andoni Maiztegi, Unai Garmendia, Francisco Jose Hernandez, Maria Angeles Amunarriz, Urko Iparragirre, Carlos

Pascual, Jose Carlos Arana, Iñaki Azkona eta Iñaki Trepiana— fiskalak 18 hilabetezko espetxe txikia eskatu zuen.

Beste zazpirentzat berriz —Jose Angel Bono, Rodrigo Fernandez, Gerardo Armendariz, Jon Zabaleta, David Muñoz, Julian Carrillero eta Borja Luna— bi hilabetezko arrestua eskatu du fiskalak gertaerak izan zirenean 18 urte ez zituztelako.

DEFENTSARENTZAT EZ DAGO FROGARIK

Defentsak absolutzioa eskatu zuen istiluetan parte hartu zuten frogatua gelditu ez dela azalduz. Gainera diligentziak balio gabetzea eskatu zuen fiskalaren kalifikazioek akusatuaren inde-

fentsioa ekarri zuela argudiatuz. Izan ere, fiskalak ez zuen bakoitzari leporatzen ziren ekintzen gaineko zehaztasunik eman.

Beraien kontrako frogak bakarrik atxilotu zituzten ertzainen deklarazio «kontraesankorra» izan dela uste du defentsak. Atxilotu zituzteneko bertsio desberdinak eman zituzten, eta horrek ezin du, abokatuen ustez, «ustezko errugabetasunak baino balio haundiagoa izan».

Akusatutako gazteak ustekabean aurkitu zirela istiluen erdian berretsi zuen defentsak bere ondorioetan. «Hamazapi harri jaurtitzeagatik» epaitu dituztela azaldu zuten eta epaiketa ez dela «ETAren kymeen kontrako prozesua» izan nabarmendu zuten.

Beste bi gazte atxilotu ditu Poliziak Donostian ustez sabotaiak egiteagatik

DONOSTIA

Juan Antonio Figueirido Ramon, 24 urtekoa, eta Igor Koch Comin, 19 urtekoa, atxilotu zituen atzo Poliziak Nazionalak Donostian; lehenengoa Larratxo auzoan, eta Alde Zaharrean bestea. Joan den asteazkenean Donostian izandako beste sei atxilotekin erlazionatuta daude atzokoak. Guztiei «ETAren 'Y' taldeetako partaideak» izatea leporatzen die Gipuzkoako Gobernu Zibilak, eta ondasun publiko nahiz pribatuen kontra sabotaiak egitea.

Zortzi atxilotuak Donostiako

polizia egoitzetan izan dira inkomunikatuta atzorarte, eta gaur deklaratu dute ziurrenera Madrillgo Entzutegi Nazionalan.

Bestalde, Aritz Mujika eta Aitor Garcia atxilotuentzat 'Habeas corpus' eskaera egin dute beren senideek. Bi gazteen egoeraz kezkatuta agertu dira biek tratamendu zehatz eta jarraitua eskatzen duten gaitzak dituztelako. Aitor Garcia soriari larria du eta krema bat eta elikagai dieta berezia behar du. Aritz Mujikak karbono protasisa du bere tibia eta peronearen ordez eta zaurien garbiketa eta mediku kontrola behar ditu.

Gainontzeko lau atxilotuak Asier Garcia (Aitorren anaia), Iñigo Arretxe, Koldo Jimenez eta Unai Zubilaga dira.

ATXILOKETEN KONTRAKO PROTESTAK

Donostiako hainbat ikastetxetako ikasleak atxiloteta horien kontra manifestatu ziren atzo. Talde batek Donostia eta Astigarraga lotzen dituen errepidea moztu zuen goizeko hamarrak aldera. Eguerdian Miraflores-eko gaineran konzentratu zen beste talde bat; Gros auzora jaitsi ziren manifestazioan eta trafikoa eten zuten.

Arratsaldeko ordu batean be-

rriz, berrehun ikasle inguru Poliziak Nazionalaren egoitzaren aurrean konzentratu ziren atxilotuen aske uztea eskatuz. Martuteneko Lanbide Heziketa Institutuko ikasleek atxilotuei eta beren senideek elkartasuna azaldu zuten agiri batean, eta beren egoera «fisiko eta morala» errespetatua izan dadin eskatu zuten.

Gipuzkoako HBk bere aldetik, atxilotetak eta Intxaurrendoko bere egoitzaren miaketa salatu zuen, «euskal gazteriaren kontrako zigor operazioa izan delako». Bere ustez «euskal gizarte-ko sektore borrokalarrienak belhurtzea» dute helburu.

Baiona-Ekialdeko kantonamendu bozak hautagai abertzale gabe egingen dira

H. GOROSTIAGA / BAIONA

Baiona-Ekialdeko kantonamendu bozetan ez da hautagai abertzalerik aurkeztuko, bihar Lehendakarietzarako hauteskundeekin batera egingen duten lehen itzulian. Pabean dagoen Kontseilu Nagusirako hautetsia Jean Grenet egungo Baionako auzapeza zen Baiona-Ekialdeko kantonamendutik, baina honek kargu berria hartzerakoan, kontseilari nagusiaren betebeharrak utzi eta hauteskundeak egingen dituzte kantonamendu horretan soilik. Baiona-Ekialdeko kantonamendua Baiona Tipia, Saint Bernard eta Santespi auzoek osatzen dute, eta guztira 6.597 bozemaile daude.

Abertzaleak ez dira aurkeztuko, Berdeekin hala erabaki baitute adostasunik ezean. Bi taldeek azaldu dutenez «hauteskunde horiek ez dute interes handirik, bakarrik Jean Greneten kargu gose ezin gaindituak gertaraziak» direlakoan. «Presidengoko hauteskundearen erdian eta herrietakoetatik zenbait asteetan dira, ez ez daiteke zinezko kanpainarik egin, ez dute ere oldar politikorik sortaraziko. Baionesez ez diote, iduriz, batere kasurik egiten». Horregatik kindarrak herri bozei buruz zuzendu nahi dituzte.

Kanpaina berez ikustezina izan da, zeinbat irrati-lokaletan egindako eman-kizunak salbu. Sozialistek Pierre-Claude Duprat aurkeztu dute. Bere esanetan «Baionak ordezkari ez-kertiarraren beharra du Kontseilu Nagusian». Horrez gain egoitza sozialaren aldeko joera azaltzen du, baita diruaren xahutze kontrolatuagoa ere. Jean Barnetxe, berriz, UDF-RPR alderdien ordezkari gisa ariko da «Baiona bihotzean» lelopean. Baionako auzapezaren jarraitzailea, eta François Bayrou eta Alain Lamassouren adixkide gisa agertzen da. Denis Greslin Front Nazionalen ordezkaria da. «Frantsesa lehenik, euskalduna beti» leloarekin, drogomenpekotasunean daudenen aurka eta atzeritarren kanporatzearen alde aritu da batez ere. Azkenik, Gilbert Desez komunistak berriz ezkerrean batasunaren aldeko deia luzatu du.